LAZKAOKO
UDALA

2021EKO IRAILAREN 20KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko irailaren hogeian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2021eko irailaren 6an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2021eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 54 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HAMABOST MILA ETA HIRUROGEITA HAMASEI euro ETA HOGEITA HAMALAU zentimo (35.076,34 €)takoa onartzea erabaki da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 21-11-05 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2021eko uztailaren 21etik aurrera, asteazkenetan 2 ordu etxeko laguntzarako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %100 izango da.

- 20-11-07 zbk.dun esped.: 2021eko uztailaren 8tik aurrera zerbitzua handitzea astean 9 ordutik astean 15 ordura, onuradunaren osasun egoerak okerrera egin duelako. Erabiltzailearen ekarpena zerbitzu kostuaren %2koa izango da.

- 17-11-04 zbk.dun esped.: 2021eko abuztuaren 17tik aurrera zerbitzua handitzea astean 10 ordutik astean 20 ordura, onuradunaren osasun egoerak okerrera egin duelako. Erabiltzailearen ekarpena zerbitzu kostuaren %2 koa izango da.

- 21-11-06 zbk.dun esped.: Zerbitzuan alta ematea 2021eko irailaren 7tik aurrera, astean bi orduz etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %35 izango da.

LAZKAOKO
UDALA

- 13-11-03 zbk.dun esped.: 2021eko irailaren 10etik aurrera zerbitzua handitzea astean 20 ordutik 23 ordura. Osasun egoera okertu denez laguntza pertsonalerako izango da. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 ekoa da.

- 21-11-07 zbk.dun esped.: Zerbitzuan alta ematea 2021eko irailaren 22tik aurrera, astean 2 egun eta eguneko 2 ordu, laguntza pertsonalerako eta etxeko garbiketarako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2a izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 16-01-005 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 €ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 18-01-012 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntza bajan ematea abuztutik, erabiltzailearen bizileku aldaketagatik.

- 21-01-004 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntzatik bajan ematea uztailetik, erabiltzailearen diru sarreretan aldaketak egon direlako.

- 21-01-009 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 €ko dirulaguntza ematea otsailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

Gazte laguntzaileentzat bekak.-

IORITZ BARANDIARAN EIZMENDI-ri, 2021eko uztailaren 30etik 2021eko abuztuaren 21era Buena Vista-n, Costa Rica, dortoken babeserako eta bertako komunitatearen kontzientziaziorako burutu duen boluntario bidaia egiteko 1.161,52 €ko dirulaguntza ematea onartu zen 2021eko uztailaren 26an izandako Tokiko Gobernu Batzarrean.

2016ko martxoaren 30ean GAOn publikatutako oinarrietan jartzen duenaren arabera, ordainketa bi zatitan egingo da, %50a bidaia egin aurretik eta %50a gastuen faktura edo agiri originalak aurkeztutakoan.

Gastuen justifikazioa aurkeztu ostean, Ioritzek, 1.256,33 €ko gastuak aurkeztu ditu, aurreikusita ez zeuden bidaia gastuak izan dituela azalduz. Hau honela, hasierako eta amaierako gastuen artean, 94,81 €ko aldea azaldu du. Beraz, bigarrengo ordainketa honakoa izatea proposatzen da: 675,57 €koa (falta ziren 580,76 € eta orain aurkeztutako 94,81 €).

Mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonei, estimulazio/errehabilitazio programak egiteko, laguntza emateko oinarriak.

Gizarte zerbitzuetako batzordeak, Lazkaoko udalerrian mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonei, estimulazio edo errehabilitazio programak egiteko, laguntzak emateko dirulaguntza oinarriak onartzeko proposamena egin du.

Proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabakiak hartu ditu:

LAZKAOKO UDALA

Lehena.- Lazkaoko udalerrian mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonei, estimulazio edo errehabilitazio programak egiteko, laguntzak emateko dirulaguntza oinarriak hasierako izaeraz onartzea. Oinarri hauek bere espedientean daude.

Bigarrena.- Akordioa 30 egun baliodunez jendaurreko erakustaldian edukitzea, iragarkia udalaren iragarki oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

Hirugarrena.- Jendaurreko erakustaldi denboraldian inolako erreklamazio edo alegaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko hasierako akordioa behin betiko hartutzat joko da berariazko beste akordio baten beharrik gabe.

Laugarrena.- Oinarrien behin betiko onarpenaren menpe, dirulaguntza hauen 2021eko deialdia onartzea.

IV.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO DIRULAGUNTZAK .-

Landa lurreko batzordetik, baserritar ekoizleei 2021eko erosketa bonuen ordainketa egiteko proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, honako erabakia hartu du:

- Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2021eko apirilean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei zazpigarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

Baserritarra	Zenbatekoa
AITOR IZTUETA BARANDIARAN	275,00 €
GUZTIRA	**275,00 €**

V.- ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA.-

Udal Osoko Bilkurak, 2021eko ekainaren 24an egindako batzarrean, 2021 urterako onartutako plantilla eta lanpostuen zerrendaren aldaketa ikusita.

Tokiko Gobernu Batzarrak, udal honetako alkatetzaren eskuduntzen eskuordetzaren baitan, eta honi Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen Legeak bere 21. 1. g) artikuluan xedatutakoaren arabera ematen dizkion eskuduntzak erabiliz, aho batez, honako erabakiak hartu ditu:

Lehena.- Ondoren zehazten den plaza barneratzen duen 2021. urterako enplegu publikoaren eskaintza onartzea:

Plazaren izena: Udaltzain agentea.
Plaza Kop.: 1.
Taldea: C1.
Plantilla: Funtzionarioena
Eskala: Administrazio Berezia.
Subeskala: Zerbitzu Bereziak.
Mota: Udaltzaingoa

LAZKAOKO
UDALA

Bigarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

VI.- UDALTZAIN AGENTE BATEN PLAZA BETETZEKO OINARRIAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) oinarrietan hainbat aldaketa sartzeari buruzko aukera planteatu du eta horren aurrean, oinarriak berraztertzeko berriro ogasun eta pertsonal batzordera eramango direla eta gaia mahai gainean uztea erabaki da.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bost eta erdiak direnean nIk, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

LAZKAOKO
UDALA